

## Xiberotarraren ortografia – Xehetarzün zonbait

2017-05-16

### Testüingürüa

Oro har, eta xantza da, xiberotarraren ortografia finkatürık da. Euskaltzaindiak gomendatzen dütuan euskara batuaren idazteko arauer jarraikitzent zaie ([www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net) - Arauak). Haatik, püntü zonbait ez ziren argi. Xiberoa gainti hitz edo aditz jokatü zonbaiten ahozkatzea aski ezbardin beita, düda zonbait baziren bariazione horrengatik. Izkiribatzeko molde hoberena zoin den deliberatü dügü, üsüenik ahozkatze hedatüenaren berrestezi. Edo batuaren formaren eta etimologiaren kontüan hartzez. Noiztenka, forma bat beno haboro honartü dügü. Hots, ortografiaren alorrean ere, haütatzeko mementoan irizpide bat beno haboro bada. Prefosta, ikertü ez dügün puntürük ere egoiten da.

Printzipio nausia da ahozkatzea eta ortografia bi gaüza ezbardin direla, lehenak biggerrenean eraginik ükenik ere. Ahozkatzea libreago da. Bena ortografiak ez dü ahozkatzearen bariazionea osoki emaiten ahal. Halere, simple bada eta ahozkatzeari hüllan bazaio, hobe da ondotik ikasteko eta baliatzeko.

Jean-Louis Davanten aipamen horrek egoera ontsa llabürtzen züan: «*Grafia berria gure euskalkiari nola behar deiogün aplikatü, orokorki badakigü. Haatik püntü bakant elibatetan arrenküra zonbait egon dira isilpean, aharrarik ez sortzeko, holakorik ez beigünüke behar...*» («Zübereraz nola izkiriba?», 2011, *Euskal Herriko kazeta*).

Gogo honez, xiberotarrez idazten düen, xiberotarra erakasten düen eta xiberotar euskalzale zonbait lau aldiz bildü gira Mauleko Zerbütxügünean puntü horien argitzeko (2012-11-24, 2013-01-26, 02-23 eta 03-30). Parte hartü düenen zerrenda txosten honen ürrentzean dago. 2016ko azaroaren 24ean, berriz, Baionako Euskaltzaindiaren egoitzan talde ttipi bat bildü da beste püntü zonbaiten ikertzeko eta 2017ko maiatzaren 16an Mauleko Zerbütxügünean.

Hona lotürik honartürük izan dena.<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> Llabürdürak eta beste: bat. = euskara batua; biak = bi formak honartürük; hobe = bi forma honartürük izanik ere, forma hau hobetsi da; plür. = plürala; sing. = singularra.

## 1. Alfabeto (*alfabetoa*)

- *ñ*<sup>2</sup>

### Izen arruntak

**-ñi ttipizale** (ez -in)

*amañi, aitañi, amiñi bat, ederñi, pottikoñi, ttipiñi*, etab.

**ñ-ekin izkiribatzen diren hitzen zerrenda:**

*ñabo, ñapür, ñikañaka, erregiña, espartiña, iñazi, lamiñak, lapatiña, porrokiña, zartagiña, zikiña, andereño, -ñi-rekikoak, diñagü* (eta -ña-rekiko beste adizkiak), etab.

**besteak in-ekin izkiribatzen dira;**

*hein, hoin, zoin, gain, arrain, bezain, üinürri, gaztaina, txainkü, urdaina*, etab.

**-in / -ina ahozkatzen diren hitzak:**

*hegazkin(a), panpin(a), urdin(a), sorgin(a), zikin(a)...*

### Izen propioak (bereziak)

*Aña / Aina, Beñat / Beinat, Johañe / Johaine...*

Izen ttipiekin libertatea handiago izanik ere, toponimian (toponimoak = lekü izenak) edo familia-izenetan libertaterik ez da:

*Urdiñarbe, ez \*Urdinarbe* (Euskaltzaindia, 1999).

Bena *Ainharbe* eta ez \**Añharbe*, *Garindaine* eta ez \**Garindañe*, *Lorraine* eta ez \**Larrañe* (Euskaltzaindia, 1999)...

- *dd, ll, tt*

### Izen arruntak

**-tto ttipizale** (ez -ito)

*etxetto, gizontto, gogortto, ontsatto, orentto, zakütto, zertto...*

**dd, ll, tt-ekin izkiribatzen diren hitzen zerrenda:**

*onndo, llabür, llapi, lloba, botilla, gillikatü, holli, hüllan, ttattit, ttipi, ttottotü, ttunttun, -tto-rekikoak...*

**besteak id, il, it-ekin izkiribatzen dira:**

*akülatü / akiülatü, arroila, küilera, oilo, üiliü, ürgüiliü...*

---

2 Euskaltzaindiak gomendatzen düana: «1. Euskaltzaindiak ontzat hartzen ditu *ñ, dd, ll, tt* eta *x* kontsonante palatalen grafiak balio adiezkorra duten kasuetan, hala nola *andereño* (...), *llabur, ttanta, edder*... 2. Egituraren bidez, aurreko *i-* bokala medio leku batzuetan sortu diren palatalizazioetarako, ordea, *-in-, -il-, -it-, -int* eta *-ind-* erabili behar dira...», *Euskera*, 1979 - 1: 91.

## **Izen propioak (bereziak)**

*Allande / Ailande, Panpella / Panpeila / Panpeia, Battittu / Battitu, Maddi...*

Izen ttipiekin libertatea handiago izanik ere, toponimian edo familia-izenetan libertaterik ez da.

*Ithorrotze, Pettarra, bena Arbaila* (Euskaltzaindia, 1999).

### • s / x

*esker, soil, sü...*

*exker, ixil, ixuri, ixuri, kexü, xuri...*

## **2. Ahozkatze ezbardinak eta izkiribatzea**

### • a / e

*arrastelü / arrestelü* (biak, bat. arrastelu)

*arrastiri* (hobe) = arrats + iri « ondoan » (beste hozkatzeak: arrestiri / arristiri)

*eskaler / eskeler* (biak)

*gaztaina* (hobe) / *gazteina*

*ühaitza* (hobe) / *üheitza*

### • e / i

*ebil / ibil* (biak)

*exker* (hobe) / *ixker*

### **-ra- (aditz arazle/erazle)**

*eradan* (edan + -ra-)

*eragin* (egin + -ra-), *eragile...*

*erakarri* (ekarri + -ra-)

*eraman* (eman + -ra-), *eramaile...*

*erakatsi* (ikasi + -ra-) / *irakatsi, erakasle / irakasle* (biak)...

*erakutsi* (ikusi + -ra-), *erakusle...*

### • a / u

*arto, lano*

*ardu, arratu, miliu, puzu, neskatzuna*

### • h kontsonante ondoan (silabaren hatsarrean)

**Izen arruntetan** [p<sup>h</sup>], [t<sup>h</sup>], [k<sup>h</sup>] p, t eta k izkiribatzen dira<sup>3</sup>: *piko, ikasi, ikusi...*

---

3 Euskaltzaindiak dio: «1.1. Iparraldeko literatur (sic) tradizioan hainbat hitzetan *kons + h* bikoteak agertzen dira: *epher, berthute, urkhatu, senhar, ilhun, orhe, urrhe*. Kontsonante ondoko H horiek baztertzea proposatzen da, *eper, bertute, urkatu, senar, ilun, ore,urre...* idatziz, salbuespenik gabe», *Euskeria*, 1979 - 2: 661.

Izen berezi zonbaitetan (toponimoak) *ph*, *th* edo *kh* honartürük izan daiteke: *Atharratze*, *Atherei*, *Ithorrotze* (Euskaltzaindia, 1999).

### ***Bi erranahi ezbardin (l, n eta r ondoan)***

Nahasketarik ez bada, *h* ez da honartürük: *arin*, *ele*, *ola*, *soro*...

Halere, bi izen ezbardin, bi erranahi ezbardin bereizteko, *l*, *n* eta *r* ondoan *h* izkiribatzen da.

*ala* (edo) / *alha* (belhar jate)

*aran* (ibar), *aran* (herots) / *arhan* (frütü)

*belar* (boronte) / *belhar* (lantare)

*eri* (gaitz) / *erhi* (hatz), *erhaztün*

*zale* (*eüskalzale*) / *zalhe* (laster)

*ero* (ertzo) / *eho* (hilaraz); *orit*, *orhit* (memoria) / *ohit* (üsätü)

**Izen bereziak:** *Ainharbe*, *Arhane*, *Olhaibi*, *Sorholüze*... (Euskaltzaindia, 1999)

#### **• *h* lehen letra xiberotarrez, batuaz ez**

Xiberotarrez hitz zonbait *h*-ekin hasten dira eta batuaz ez.

Xiberotarrez: *haidürü*, *hanitx*, *haxeri*, *hoin*, *hon*, *honartü*, *hur*, *hürrün*...

Batuaz: *aiduru*, *anitz*, *azeri*, *oin*, *on*, *onartü*, *ur*, *urrun*...

#### **• *h* lehen letra batuaz, xiberotarrez ez**

Xiberotarrez: *aize*, *aragi*, *azi*, *ezür*, *igitü*, *odei*, *osto*...

Batuaz: *haize*, *haragi*, *hazi*, *hezur*, *higitu*, *hodei*, *hosto*...

## **3. Ahozkatzearen eragina**

#### **• *i* protetikoa (eufonikoa, epentetikoa) monosilabetan**

*süi* + *-a* determinazalea [ʂýja] ahozkatzen da, hiatüsaren baztertzeko.

*süia* (hobe) / *süia*

*tüia* (hobe) / *tüia*

#### **• *a* + *ü* > *ai* diptongoa**

*a+ü* xiberotarrez *ai* ahozkatzen da.

Batua lagüngarri da diptongoaren izkiribatzeko:

*aüzo* (bat. *auzo*, ez \**aizo*), *belaün* (bat. *belaun*, ez \**belhain*, \**belhañ* edo \**belañ*), *gaiü* (bat. *gau*), *gaüza* (bat. *gauza*)

Adizkiak: *haiüt* (ez \**hait*), *naüzü* (ez \**naizü*), *naüe* (ez \**naie*)...

- **i > ü** (asimilazione gibelkaria)

*itxiüra / ütxiüra* (biak), bat. itxura

Bena *üdüri, üngürüü, üngürada, ütsü, ütürri...* (bat. iduri, inguru, itsu, iturri...)

*zer* (ez \*ze, *zer lotseria*)

#### 4. Lexika (*lexikoa*)

- **a / o gibelizkia** (atzizkia)

##### *Izen arruntak: a / o*

Aspaldidanik -a-rekin erabilik direnak:

*kilometra* (bat. *kilometro*), *metra* (bat. *metro*), *telefona* (bat. *telefono*), *turisma* (bat. *turismo*)

Beste izenekin bi formak honartürik dira<sup>4</sup>: *alfabeta / alfabeto, ergatiba / ergatibo, organika / organiko...*

##### *Adjektibak: -o*

Adjektibak -o-rekin beti: *etika* (izen) / *etiko* (adj.), *mekanika* (izen) / *mekaniko* (adj.), *politika* (izen) / *politiko* (adj.), *teknika* (izen) / *tekniko* (adj.).

*teknika berria / arrenküira teknikoa; politika problema bat / problema politiko bat*

- **-zione gibelizkia**

Latinetik *-tio*, batuaz *-zio*, xiberotarrez **-zione**

*aposizione* (bat. *aposizio*), *interjekzione* (bat. *interjekzio*), *nozione* (bat. *nozio*), *postposizione* (bat. *postposizio*), *tradizione* (bat. *tradizio*)...

- **-u ürrentzean**

Latinetik *-io,-ionis*, batuaz *-oi*, xiberotarrez **-u**

*arratu* (bat. *arratoi*), *arrazu* (bat. *arrazoi*), *balu* (bat. *baloi*), *kamiu* (bat. *kamioi*), *xabu* (bat. *xaboi*)...

- **r / rr**

-r-ekin ürrentzen den hitza mügatürik delarik, -r doblatzen da:

*egür / egürra, haur / haurra, lür / lürra, segür / segürra...*

Salbüespenak, monosilaba zonbait:

*hur / hura, zur / zura...*

---

4 Ikastoletan, halere, -o-rekilanko forma erakasten da, gero batuala aisago iragaiteko.

*Aldiz ezari / ezarri* (biak honartürik)

• **-er** hitz jesanak

Halere, hitz jesan horik mügatürik direlarik, -r doblatze araua ez da betatzen:  
*eskeler, eskaler / eskelera, eskerak*  
*kaier / kaiera*  
*paper / papera*  
*plazer / plazera*

• **k / g**

*alkar / algar* (biak honartürik)

• **d / r**

*aide / aire* (biak)  
*ahaide* (müiska, familiako) / *ahaire* (biak)  
*apaidü / apairü* (biak)

• **h? eta non?**

*astearte* (ez \*asteharte, ahozkatürik izanik ere, *aste + arte* beita)  
*gaüerdi* (ez \*gaüherdi, ahozkatürik izanik ere, *gaü + erdi* beita)  
*haurride* (aurhide ahozkatürik izanik ere)  
*hilERRi* (ilherri ahozkatürik izanik ere)

• **Asteko egünak**

*astearte*  
*igante* (bat. igande)  
*neskenegün* (hobe) / *neskanegün*

• **Hilabeteak**

*urtaril* (bat. urtarril)  
*barantaila* (bat. otsail)  
  
*martxo*  
*apirila* (bat. apiril)  
  
*seteme* (hobe) / *setemer* (*bürüil, irail*) biarnesetik jinik: seteme  
*setemeraren 3a / setemeren 3a* (biak)

• **Besterik**

*animaleko*  
*bakotx / bakoitx* (biak)  
*behar ere* bena *halere*

*debeiatzen, debeatzen* (biak)  
*elibat / eli bat*  
*eli bat* (izen, *bi galtza eli*) / *elibat* (zonbatzale = zonbait, *jente elibat*)  
*entelegüa* (batuaz: ulermenai), *entelegatü*, *entelegatzea*  
*testu entelegüa*: compréhension de texte  
*kültüra* (\*kültür ez), *literatüra* (\*literatür ez),  
*nihau / nihaur, gihau / gihaur...* (biak)  
*txüti* (ez \*xiüti)  
*zonbakia, zonbatü, zonbat?* (batuaz zenbaki, zenbatu, zenbat?)

### • Batuazko hitzak hartürík

*doinü* (tonü, aide)  
*ekintza* (egiten dena = l'action) eta *egintza* (eginik dena = résultat de l'action)  
*eredu* (modelo)  
*ikur* (sinbolo, ikerriña bezala)  
*testu, testü* (testo ez)

## 5. Morfología

### • Aditzaren morfologia: pertsona indizeak

*ta / da*  
*ta:* *zitaziü* (ez \*zidazü), *zeitan* (ez \*zeidan, bat. zidan).

*gü* (hobe) / *kü*  
*gü:* *zaigü* (*zaikü*), *deigü* (*deikü*), *zigüzü* (*ziküüzü*)...

*deizüt / dereizüt* ahozkatzea: [déjsyt]  
*deizüt*  
*dereizüt* literatúran, hoin baten beharra balin bada

*zirae / ziraie / zirade / ziradee / zidee* (2. pertsona plúrala) bat. zarete  
ahozkatzea: [sidé] [sirajé]  
*zidee* (arrunta), *ziradee*, *ziraie* (lantürík)

*zinatee / zinatekee / zinateie / zinatekeie* (2. pertsona plúrala) ahozkatzea: [sijatékejé]  
*zinatekee, zinatekeie* (biak)

*zait, zaikü, zaio...* (*izan*, nor-nori) ahozkatzea: [sajt] [sájky] [sájo] bat. zait, zaigu, zaio  
*naü, naiie, haü...* (\**edün*, nor-nork) ahozkatzea: [naj] [naje] [haj] bat. nau, naute, hau

*zaio* (*hari* sing.) / *zaitzo* (*hari* plür., oraialdia), *zeion* (sing.) / *zeitzon* (plür, lehenaldia)

## • Aditzaren morfologia: agintaldia (inperatiboa)

*zite* (agintaldia, 2. pertsona singularra) bat. zaitez, ahozkatzea: [síte]

*zitee / ziteie* (agintaldia, 2. pertsona plúrala) bat. zaitezte, ahozkatzea: [sité]

*zitee, ziteie* (biak)

*izaiozu / ezozü* (arrunta)

*erran ezozü / errozü* (arrunta), *erran izok / errok* (arrunta)

*ohart, orit, osot, marratz, ürrent, xüxent...* (*Erranaldiak xüxent itzazü*), *marra, margo, oso, üngüra...*

## • Erakusleak

*hauk / hoik* (abs.), *hauek / hoiek* (erg.) (erakusle hüilana plúralean)

singular absolutivo	singular ergativo	plural absolutivo	plural ergativo
<i>hau</i>	<i>honek</i>	<i>hauk / hoik</i>	<i>hauek / hoiek</i>
<i>hori</i>	<i>horrek</i>	<i>horik</i>	<i>horiek</i>
<i>hura</i>	<i>harek</i>	<i>hurak</i>	<i>haiek</i>

Erakusle hüllanak plúralean bi forma badü: *hauk* eta *hoik* (absolutivo), *hauek* eta *hoiek* (ergativo), etab. *Haiek* [hεk] ahozkatzen da.

## • Zonbakiak

*hirutan hogeい / hiruetan hogeい / hiruretan hogeい* ahozkatzea: [hiútan]

*hiruretan hogeい<sup>5</sup>* (hobe)

*lautan hogeい / lauetan hogeい / lauretan hogeい* ahozkatzea: [láwtan]

*lauretan hogeい* (hobe)

*hiruehün / hirurehün<sup>6</sup>*

*hirurehün* (hobe)

*lauehün / laurehün*

*laurehün* (hobe)

5 Euskaltzaindia, Arauak 7: «60 eta 80 adierazteko *hirurogei* eta *laurogei* ageri dira forma nagusi bezala. Ekialdean ere *hirurogei* bezalakoak erabili izan dira historian, baina XVIII. mendetik *hiruretan hogeい* (*hiruetan hogeい*, berriagoa) eta *lauretan hogeい* (*lauetan hogeい*). Kontuan izan, jakina, *hogoi* horrek ere sortzen dituen aldaerak», 21. or. «60 hirurogei (*hiruretan hogeい*) 80 laurogei (*lauretan hogeい*)», 23. or.

6 Euskaltzaindia, Arauak 7: «300 hirurehun 400 laurehun», 23. or.

## • Kasüak

**Soziatiba** (soziatiboa)

-kin / -ki

-kin / -ki (biak)

**Inesiba** (inesiboa)

gaüan, goizan

barnen / barnean, gainen / gainean

**Adlatiba** (adlatiboa): **-la** (**-lano**) / **-lat**

hureala, hurealano (jusqu'à l'eau)

hurealat (vers l'eau, en mouvement vers)

**Ablatiba** (ablatiboa)

-tik / -ti (ez)

-tik

Lekü izen propioekin **-rik** (ez **-tik**)

Maulerik, Arrokiagarik, Eskiularik, Ameriketarik, Garraibirik...

Artikülüa balin bada: **-tik**. *Onizepea, Ospitalepea, Sarrikotapea, Xiberoa*: **-a** hori artikülüa da.

*Onizepetik, Ospitalepetik, Sarrikotapetik, Xiberotik*

Bena *Onizegainerik, Sarrikotagainerik*, **-a** artikülüa ez beitüe (*Onizegaine, Sarrikotagaine*).

## • Balintza aitzinizkia (aurrizkia): **ba-**, **balin ba-**

**balin ba-** / **balinba**

**balin ba-** (ez lotürik, balintza): **balin bada**

**balinba** (segür ere, heltü bada)

**bada** / **ez da**

**bada** (lotürik): **jente bada** (ez \***ba da**)

**ez da** (ez lotürik): **jenterik ez da** (ez \***ezta**)

## Erreferentziak

- CASENAVE-HARIGILE Junes, 1989, *Hiztegia Français-Euskara* Züberotar euskalkitik abiatzez.  
\_\_\_\_\_, 1993, *Hiztegia II Euskara-Français*, Xiberotar euskalkitik abiatzez.
- ETXEBARNE Jüje, 2010, *Gramatika emendakinak. Zuberoako euskaraz*.
- EUSKALTZAINdia, 1979, Kontsonante busti-palatalen grafiaz Euskaltzaindiaren erabakia, *Euskera*, XXIV (2. aldia) - 1, Bilbo, 91-92.
- \_\_\_\_\_, 1979, « H » letraren ortografi arauak, *Euskera*, XXIV (2. aldia) - 2, Bilbo, 659-693.
- \_\_\_\_\_, 1994ko urriaren 28an onartua, Arauak 7. *Zenbakien idazkeraz*, 21-24, [www.euskaltzaindia.net/dok/arauak/Araua\\_0007.pdf](http://www.euskaltzaindia.net/dok/arauak/Araua_0007.pdf)
- \_\_\_\_\_, 1999ko iraila, *Zuberoako herri eta herritarren izendegia*, *Euskera*, separata, Bilbo.
- \_\_\_\_\_, 2010, *Hiztegi Batua* 3. argitaraldia.

## Lanean parte hartü düenak molde batez edo bestez:

**Joana Arhancet** (Basabürüko ikastola, erakasle), **Maider Bedaxagar** (Ikas Xiberoa), **Johañe Bordaxar** (XEB, idazle), **Junes Casenave-Harigile** (ohar idatziak, Euskaltzaindia, idazle), **Battittu Coyos** (Euskaltzaindia), **Jean-Louis Davant** (Euskaltzaindia, idazle), **Christelle Elgoyhen** (erakasle), **Allande Etxart** (XEB, ützülzale), **Dani Etxart** (Xiberoko Botza), **Margaita Etxart** (andereño ohi, idazle), **Niko Etxart** (idazle), **Jüje Etxebarne** (AEK, idazle), **Panpeia Etxebarne** (idazle), **Maddi Etxekopar** (Ikas Xiberoa, AEK), **Mixel Etxekopar** (erakasle), **Eliane Héguiaphal** (ohar idatziak, Argia kolegioa, erakasle), **Marlène Irigoyen** (erakasle), **Maritxu Lacarrieu** (Xiberoa Herri Alkargoa), **Anne-Marie Lacroix** (erakasle kolegioan), **Vanessa Lechardoy** (Mauleko Herriko Etxea), **Odette Mohorade** (Eperra ikastola, erakasle), **Maddi Oihenart** (Sü Azia), **Patxi Patalagoyti** (AEK), **Txomin Peillen** (Euskaltzaindia, idazle), **Maider Sarasola** (erakasle), **Jakes Sarraillet** (Euskaltzaindia, Hezkuntza nazionaleko ikuskari), **Jean-Claude Séhébiague** (Erakaskuntza pùbliko, erakasle), **Marie-Jo Thornary** (XEB, AEK, Xiberoa Herri Alkargoa), **Xarles Videgain** (Euskaltzaindia).